



Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas
de la RASD de Álava

Informazio Buletina

2024ko ABENDUA

Gazako genozidio sionistak, Donald Trump, AEBko presidente hautatu berriak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren sententzien argitalpenak eta haren aurkako erreakzioek nabarmendu ditzakegu beriez gaindizkako hilabete hauetan, zeinetan ospakizun eta urteurren ugari izan dira, batez ere urrian eta azaroan, besteak beste, batasun nazionalaren eguna (10/12), Gdeim Iziken oroitzapena eta Martxa Berdea edo Madrilgo hiruko akordioak (A14).



Buletin honetan, ondoko gaiei buruzko informazioa aurkituko duzu:

- Nazioarteko egoera iraila eta abendua bitartean
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiari buruz
- Gazteriaren diagnostikoa
- Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasunen Gazteen Nazioarteko Foroal
- Giza eskubideak. Aldizkako azterketa unibertsala
- Azaroak 14ko ospakizuna
- Aguraingo elkartasun astea
- Gasteiz en Conexión
- Laguntzaile eta adiskide erailak
- Kanpamenduetara egindako bidaiak
- EUCOCO



Nazioarteko egoera iraila eta abendua bitartean

Agian, Mendebaldeko Saharako egungo gatazkaren bilakaeran kanpotik garrantzi handiena izan dezaketen gertakariak Gazako sarraski-gerra sionistaren iraupena, hark eskualde osoan izan dezakeen gorakadarekin eta Donald Trump berriz ere AEBren presidente aukeratua izana izango dira. Hala ere, mugimendu solidarioaren baitan, arreta handiagoa jarri dugu urriaren 4an EBJAren epaien argitaratzeak eragin dituen analisi eta mugimenduetan, Europako botereen kasuan, gehienak, ebazpen horiek aplikazioa saihesteko ahaleginak izan direla. Adibide gisa, Emmanuel Macronek ebazpena jakin eta egun batuetar egindako adierazpenak, Frantziak Sahararen gaineko subirotasuna Marokori aitortuz, edo Espainiako gobernuak eta EB osoak egindako adierazpen anbiguoak, "Marokorekin arlo guztietan harreman estua mantendu eta indartzen jarraitu" behar dela esanez.

NBEk, bere aldetik, bere eragingabetasun-maila gorena erakusten du, eta Batzar Nagusiak edo IV. Batzordeak autodeterminazioaren aldeko adierazpen orokorrak egiten dituzten bitartean, Segurtasun Kontseiluak Marokoren interes kolonialen alde egiten jarraitzen du, F. Polisarioak orain gutxi salatu duen bezala. Bitartean, bai lurralde okupatueta, bai kanpamenduetan, estatu sahararra eta gizartea beren koordinazio-mailak hobetzen saiatzen ari dira, errepresioari eta klima-aldaketak eragindako hondamendiei aurre egiteko.



- 1- <https://curia.europa.eu/jcms/upload/docs/application/pdf/2024-10/cp240170es.pdf>
- 2- <https://www.france24.com/es/%C3%A1frica/20241029-macron-promete-ante-el-parlamento-de-marruecos-inversiones-francesas-en-el-disputado-sahara-occidental>
- 3- <https://www.europapress.es/nacional/noticia-gobierno-respeta-sentencia-tjue-reivindica-mantener-asociacion-estrategica-marruecos-20241004172545.html> (<https://efeagro.com/espana-relacion-marruecos-tjue/>)
- 4- <https://www.publico.es/internacional/lideres-europeos-rebajan-declaracion-sanchez-macron-apoyo-marruecos-sentencia-tjue.html>
- 5- <https://documents.un.org/doc/undoc/ltd/n24/288/63/pdf/n2428863.pdf>
- 6- <https://documents.un.org/doc/undoc/gen/n19/343/61/pdf/n1934361.pdf>
- 7- <https://www.spsrasd.info/es/2024/12/08/6719.html>
- 8- <https://www.spsrasd.info/es/2024/10/08/5585.html>
- 9- <https://archive.spsrasd.info/es/2024/09/24/5277.html>



Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiari buruz

SEADen Lagunen Elkartek bere poza adierazi nahi du EBJAk urriaren 4an eman duen epaiarengatik. Auzitegi hark, 2021ko irailean, EB eta Marokoren artean sinatutako Saharar arrantza eta nekazal produktuei buruzko hitzarmenak ilegaltzat hartu zituen ebazpenaren aurka EBren Kontseiluak eta Batzordeak – Espainia, Frantzia eta beste zazpi europar herrialderekin batera - jarritako errekurtsua atzera bota du Europako goi auzitegiak, inolako zalantza izpirik gabeko garaipen historikoa izanik bai Saharar Herriarentzat, baita kolonialismoak zapalduetako munduko herri guztientzat ere.

Ebazpen honek jurisprudentzia ezartzen du, ez daiteke errekurritu eta EBko estatu kideak behartzen dituela gogoratu nahi dugu. Epaiak argi uzten du Marokok ez duela inolako subirotasunik ez administratzeko eskubiderik Mendebaldeko Sahararen gainean, Saharar Herriak autodeterminatzeko eskubidea duela, inork ez duela bere onarpenik gabe, bere ondasunak ustiatzeko eskubiderik eta Polisario Fronteak saharar herria ordezkatzeko duela gai hauetan ere.

Ondorio ekonomiko eta politiko handiez gain, F. Polisarioren irabazi honek argi izpi bat jartzen du justiziaren gainetik indarkeria eta gizagabetasunaren inpunitatearen gaia inposatu nahi diguten egungo nazioarteko harremanetan. Basamortuko herri txikiaren indar politiko txikiago batek Mendebaldeko botere handitsuenak garaitu daitezkeela erakutsi digu. Espainiako gobernuak, aurreko gobernu guztiek bezala, bazekien ilegaltasunaren bidetik ari zela, halaxe esan baitiogu estatuko herritar eta instituzio gehienak, saharar herriarekin dituen betebeharrak alde batera utzi eta Marokoren Mendebaldeko Saharako okupazio ilegala, espoliazioa eta errepresio politikoa sustatzen bultzatu dituen bitartean. Baina orain, Europako Auzitegi Gorenak aukera paregabea eman dio - berari hala nola politika horrekin kolaboratu duten enpresa guztioi, Siemens, Repsol, Aginaga...- politika alda dezala eta, behin betikoz, F. Polisariorekin zintzotasunez negozioa dezala espoliazioaren amaiera eta saharar herriaren askatasuna.

Gora Sahara askatuta

Gora Polisario Frontea

Gora Herrien arteko elkartasuna




Gazteriaren diagnostikoa

Tindufen dauden saharar errefuxiatuen kanpalekuetako gazteen egoerak berebiziko garrantzia du. Hainbat arazori egin behar die aurre, hal anola, hezkuntzarako eta enplegurako sarbide mugatuari, etorkizunerako perspektibarik ezari, eta beste arazo batzuekiko zaurgarritasunari. Kolektibo horri arreta ematea funtsezkoa da, ez baitira bakarrik oraina, baita saharar komunitatearen etorkizuna ere.

Diagnostiko hori Begirune Fundazioaren, Ikuspegiren, Gazteen Euskal Behatokiaren eta SEADeko Gazteria Zuzendaritzaren arteko elkarlanaren emaitza da, tokiko ikerketa taldearekin eta SEADen Lagunen Elkartearen laguntzarekin batera. Gazte sahararren errealitateari begirada integrala eskaintzen dio, eta errefuxiatuen kanpalekuen testuinguruan alderdi sozialak, ekonomikoak eta kulturalak jorratu ditu. Gazte sahararren beharrak, erronkak eta indarguneak ulertzeko funtsezko tresna da, bai eta gazte horien garapena eta erresistentzia bultzatuko duten estrategiak eraikitzeko ere.

Txostena gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez edo arabieraz deskarga dezakezu gure webgunean:

<https://www.saharaelkartea.org/eu/dagoeneko-eskuragarri-dago-gazte-sahararrak-erresistentziak-egokitzapenak-eta-aukera-berrien-bilaketa-diagnostikoa-lau-hizkuntzatan/>



Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasunen Gazteen Nazioarteko Foroa

Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasunaren aldeko Gazteen Munduko Foroa (IYFSWS, ingelesez) Bilbon egin da, 2024ko urriaren 11n, 12an eta 13an. Hainbat herrialdetako 150 bat gaztek parte hartu dute bertan, Saharako herriarentzat etorkizun aske bat eraikitzeko asmoz. Foro hori gune garrantzitsua izan da hamarkadak iraun duen okupazioaren aurka ahotsa altxatzeko, eta aukera bikaina autodeterminazioaren eta giza eskubideen aldeko nazioarteko aliantzak eratzeko.



Hiru egun horietan, adituen panelak, eztabaida-mahaiak eta tailerrak izan dira, gai oso premiazkoei buruz, hala nola erbesteak Saharako gazteengan duen eraginari buruz, okupazioari eta errepresioari buruz, eta emakume gazteek erresistentzian duten rol erabakigarriari buruz. Foroak balio izan zuen Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasuneko Gazteriaren Nazioarteko Sarea abian jartzeko. Sare horrek gazte sahararren ahotsak zabaltzen lagunduko du, bai eta haien borrokaren aldeko estrategia eraginkorrak sortzen ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Foroaren web-orrira: <https://www.iyfsws.org/es/> edo @iyfsws sare sozialetan

Giza Eskubideak. Aldizkako azterketa unibertsala

Espainiako Estatua, 2025eko urtariletik aurrera, NBEko Giza Eskubideen Kontseiluko kidea da hirugarren aldiz. Giza Eskubideen Kontseilua gobernuen arteko erakundea da, Nazio Batuen sistemaren barruan, eta mundu osoan giza eskubide guztiak sustatzeko eta babesteko ardura duten 47 estatuk osatzen dute.


Aldizkako Azterketa Unibertsala (EPU) Giza Eskubideen Kontseiluaren mekanismo bat da. Horren bidez, Nazio Batuetako estatu kide bakoitzak lau urte eta erdian behin egiten du giza eskubideen arloan egindako ibilbidearen azterketa.

Espainiari egingo zaion azterketari dagokionez, gure elkarteak txosten zehatz bat aurkeztu du Nazio Batuen sistemaren aurrean, eta bertan eskatzen da Kontseiluko kide diren herrialdeek kontuan har ditzatela Espainiak Mendebaldeko Sahararen administrazio-potentzia gisa duen erantzukizunari dagokionez behin eta berriz egiten dituen ez-betetzeak.

Bereziki, saharar herriaren autodeterminazio eskubidearen erabilera sustatzeko eta eskubide hori errespetatzeko premia, Nazio Batuen Gutuneko xedapenekin eta 1966ko Nazioarteko Itunekin bat etorritik, lurraldeko biztanleen giza eskubide guztiak bermatuz.

Elkarteak Nazio Batuen aurrean aurkeztutako txostenean, giza eskubideen defendatzaileak eta, bereziki, giza eskubideen emakume defendatzaileak babesteko eskaera argia egiten da, Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak eta ondorengo ebazpenek ezarritako "Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna" Agendaren esparruan.

Azaroak 14



Madrilgo Hiruko Akordioen urteurrenaren inguruan, Espainiak Sahararekiko eta saharar herriarekiko betebeharrak alde batera utzi zituen eta, gaur egun ere, gobernuari lege eta justiziaren aurka egiteko aitzakia gisa balio dizkiotenez, sareetan kanpaina txiki bat antolatu genuen "14 de Noviembre, la traición sin fin -Azaroak 14, amaierarik gabeko traizioa " 14 de Noviembre, la traición sin fin -Azaroak 14, amaierarik gabeko traizioa lelopean (Instagramerako esteka...). Baita, Laura Casiellesen Arena en los ojos liburuaren aurkezpena, ContApunto Decolonial kolonialismoaren aurkako kolektiboarekin eta Rif Elkarte-Euskal Herria erakundearekin batera, Eva Forest Liburutopia guneko autogestizatuan. Lankidetzak horren emaitza oso arrakastatsua izan zen, eta, beraz, esperientzia errepikatzea espero dugu, baita antzeko beste kolektibo batzuekin ere.

Aguraingo elkartasun astea

Aguraingo Udalak, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Lankidetza eta Elkartasunerako Euskal Agentziak eta Arabako Foru Aldundiak urtero antolatzen dute, urrian, soldiaritate-astea. Aurten hilaren 21etik 27ra bitartean egin da "Herri okupatuak" gaiarekin.

Zabalarate espazioan hiru erakusketa bisitatu ahal izan dira: "Gaza, 30 miradas en estos días" (UNRWA Euskadi), "Hasta que nos duelan los ojos (Mertxe Amondarain) eta "Erresitentziari jaten ematen: Saharar herriaren proposamenak elikadura hobetzeko".

Erakusketa aprobetxatuz, elkartetik hitzaldiak eman dizkiegu DBHko lehen mailako 4 talderi eta bigarren mailako 5i erakusketaren xede den proiektua zertan datzan eta saharar herriak bizi duen egoera zein den azaltzeko.

Hilaren 24an solasaldi bat izan zen, eta 25 pertsona inguru bertaratu ziren. "Euskal elkartasuna okupatutako herriekin: Mendebaldeko Sahara eta Palestina" izenburupean, palestinar batek eta saharar batek beren herriek bizi duten okupazioaren testigantza eman zuten. Gainera, UNRWA Euskadiko pertsona batek eta gure elkarteko beste batek azaldu zuten zertan datzan egiten duten lana.

Gasteiz en connexion

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Lankidetza eta Elkartasunerako Euskal Agentziarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin elkarlanean, "Gasteiz en conexión" jarduera antolatu ohi du urtero azaroan, gasteiztar guztiek elkartasunaren munduarekin duten lotura balioesteko. Aurten, "Lurralde okupatuak: non daude giltzak?" izenburupean, programaren gaia Mendebaldeko Saharako eta Palestinako lurralde okupatuen errealitatea izan da.

Rosabel Argote UNRWako Hiritartasun Globalerako Hezkuntzako koordinatzaileak gidatu zuen topaketa, eta Mendebaldeko Saharako eta Palestinako ekintzaileen testigantzak partekatu ziren. Halaber, okupazioari aurre egiteko Gasteizen jatorria duten ekintzen berri eman zen, hala nola, Saharako haurrentzako oporrak bakean (AFANIS) eta Palestinaren aldeko boikota, desinbertsioak eta zigorrak (BDZ). Gainera, ekitaldia LA BASU raperak girotu zuen, eta bere aldarrikapen-letrekin inspiratzailea izateaz gain, aretoan zegoen publikoa mugimenduan jartzea lortu zuen.



Laguntzaile eta adiskide erailak

Joan den azaroan, Marokoko armadak Elkar-tearen proiektuetako bi laguntzaile hil zituen ekintza banatan.

Mohamed Ali Ahmed Doula lankidea, Gazuaniko tailerreko biltegiko arduraduna, lagun batzuk bisitatzeraz zihoan eta Lurralde Askatu-etan zehar anbulantzia zebilela, Marokoko dron batetik jaurtitako misil batek harrapatu zuen.

Bestalde, Abdelaziz Mohamed Yarba, Aaiungo Gazteriaren Eskualde Zuzendaritzako kidea, dron batetik egindako beste eraso baten ondorioz hil zen Mahbesen, Lurralde Okupatu-etan, ekintza militar batetik itzultzen ari zela.

Elkartetik doluminak eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu gure bi kideen senide eta lagunei. Beste behin egiaztatu dugu Marokok militarrek eta zibilak bonbardatzen dituela, inolako bereziketarik egin gabe, eta Mendebaldeko Saharako aire-espazioa erabiltzen duela, zeina Espainiako estatuaren ardura da, lurraldea administratzen duen potentzia den aldetik. Aire eremua Marokori lagatzea arduragabekeria larria da, eta Espainiako estatua hilketa horien konplize bihurtzen du. Aldi berean, NBEk eta MINURSOk behin eta berriz erakusten dute ez direla gai gatazkari aurre egiteko eta nazioarteko zuzenbidea betetzen dela bermatzeko. Gatazka hori gerra egoera ireki batean dago 2020tik, Marokok su-eten akordioak behin eta berriz urratu dituelako.





Kanpamenduetara egindako bidaiak

Udako oporren ondoren, hainbat bidaia egin ditugu kanpamentuetara.

Lehenengoa irailean izan zen, eta Edi, Miguel eta Patxi joan ziren Bugarfako moringa-baratzea ureztatzeko sistemarako ponpaketa-sistema bat instalatzera.

Urriaren amaieran, Martak, Begiruneko ikerketa-taldearekin, Ikuspegirekin eta Gazteen Euskal Behatokiarekin batera, "Saharako Gazteak erresistentziak, egokitzapenak eta aukera berrien bilaketa" izeneko diagnostikoa aurkeztu zuen.

Egun horietan bertan bidaiatu zuten Jeanettek eta Marta Barambiok, alde batetik ingurumen-osasuneko taldeari eta bestetik Mujer Joven erakundeko komunikazio-taldeari zuzendutako komunikazio-prestakuntza emateko.

Azaroko bidaietan, Geert lankideak Garraio eta Energia Ministerioaren gasolindegia eta tailerrak bisitatu zituen, eta, bestalde, zuzendari nagusiekin prestatu zuen datorren urtearen hasieran genero-ikuspegitik garraio publikoaz egingo den diagnostikoa. Era berean, Ur eta Ingurumen Ministerioarekin Bojador-en plastikoa birziklatzeko proiektuaren azken jardueren jarraipena egin zuen.

Buletin hau idazten ari garela, Jeanette kanpamentuetan dago. Oraingo honetan, UNMSren 50. urteurrenaren ospakizunean parte hartzera joan da, eta Arantza Cañamares Lankidetzak, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun eta Kulturartekotasun Zerbitzuko buruari lagundu dio. Zerbitzu horrek berdintasunari buruzko prestakuntza-tailerrak eskaini dizkie Gazteria eta Kirol Ministerioko langileei.



2024ko EUCOCO Lisboan

Aurten, Krabelinen Iraultzaren 50. urteurrenarekin bat eginez, EUCOCOn (Sahara Herriarekiko Elkartasuna Koordinatzeko Europako Batzordea) 48. edizioa 2024ko azaroaren 29an eta 30ean ospatu zen Lisboan, Portugalen.

Edizio honetan, elkarteko kideez gain, 21 herrialdetatik etorritako 300 ordezkari baino gehiagok parte hartu dute. Europako, Afrikako, Latinoamerikako eta Asiako gobernu-kide, parlamentari, giza eskubideen aldeko ekintzaile eta elkartasun-elkarteetako ordezkariak bildu dira bertan.

Konferentzian saharar herriak autodeterminaziorako duen eskubide besterenezina bermatzeko estrategia bateratuak artikulatu ziren, Nazio Batuen ebazpenen arabera egiteko dagoen erreferenduma lehenbailehen ezartzeko beharra azpimarratuz. Guzti hau, Fronte Polisarioak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean berriki lortutako garaipen legalak markatutako testuinguruan egin zen. Europar Auzitegiak legez kanpokotzat jo baititu Marokoren eta EBren arteko merkataritza-akordioak Mendebaldeko Saharan.

Horrez gain, Frantziak, Espainiak eta Estatu Batuek, besteak beste, Marokoko okupazioari ematen dioten babesa salatu zen, nazioarteko zuzenbidearen urraketa gisa kalifikatuz. Aldi berean, Aljeriaren babesa autodeterminazio-prozesuarekiko irmotasunez goretsi zen. Bestalde, palestinar kausarekiko elkartasuna berritu zen, subiranotasunaren aldeko eta legez kanpoko okupazioen aurkako bi borroken arteko paralelismoa ezarriz.

Jardunaldietan zehar 4 lan-talde desberdinetan banatu ziren bertaratutakoak, honako funtsezko arlo hauetako bakoitzean oinarrituta: (1) Politika eta Informazioa, (2) Giza Eskubideak eta Lurralde Okupatuak, (3) Baliabide Naturalak eta (4) Saharar Estatua sendotzea.

Gune hauek, parte-hartzaileek elkarlanean hausnartzea eta saharar kausan aurrera egiteko beharrezko erronkei eta estrategiei buruz eztabaidatzea bideratu zuen. Horri esker, 2025erako ekintza-plan bat ezarri zen, sentsibilizazio-kanpainak, mobilizazio politikoa eta ekintzak juridiko bezalako ekimenak adostuz.

Onorioak <https://eucoco.org/conclusoes-da-conferencia/> helbidean kontsulta daitezke.

Konferentziako jarduerekin batera, parlamentariak, sindikalistak eta juristak beren kezka zehatzak partekatze eta argudiatzeko aukera izan zuten. Horren adibide dira Sahararekiko Nazioarteko Elkartasun Sindikala Topaketa 2024 Parlamentu arteko Konferentzia Portugalgo parlamentuan eta Nazioarteko Juristen Elkartearen (IAJUWS) adierazpena.

Azkenik, EUCOCOn hurrengo edizioa Parisen, Frantzian, 2025ean ospatuko dela aldarrikatu zen.

[10] <https://eucoco.org/solidariedade-sindical-2024/>

[11] <https://eucoco.org/conferencia-interparlamentar-48/>

[12] <https://eucoco.org/wp-content/uploads/2024/12/IAJUWS-Declaracion-48-EUCOCO-Lisboa-29-30-noviembre.pdf>

